

“IMPONIENDO EL HÁBITO DE LA PROFUNDA OBEDIENCIA”

Lanaren Bidez Zigorra Berrerosteko Sistemarekin gertatzen zen bezala, prisioneroen lanak bi helburu zituen, Langile Batailoien araudian azaltzen direnak. Alde batetik, prisioneroen lanari ekonomikoki zein militarki onura ateratzea, eta bestaldetik askatasuna lortzen zutenerako “prestatzea”, diktaduran zegokien papera ikas zezaten.

155. artikuluan “propaganda” helburua adierazten da prisioneroak erakartzeko: “se convengan del espíritu de generosidad, justicia y de solicitud hacia el desvalido, aunque sea éste un enemigo, que rige como norma general en toda la España Nacional”, prisioneroari ere erakutsiko baitzaitzaion “el miserable engaño en que ha vivido”. Beste txosten batean “unidades de apostolado” edo apostolutza unitate gisa definitzen ziren batailoiak.

Hala ere, prisioneroen testimonioek bestelako errealitatea erakusten dute. Rosendo Iturmendik ezin izan zuen sekula ahaztu behin baino gehiagotan aditutako esaldia: “Sois las mulas de la nueva España”. Horixe izan baitzen bere eguneroko patua batailoietan: samina, kolpeak eta lan gogorra.



Testigantzak



Andrés Millán

(BDST 6, Huesca, Granada)

Adorea... galduta genuen. Bustita dagoen ganadua bezalakoa da, artzainak jo duena, adorerik ez baituzu, ezta defentsarik ere, hain beldurtuta zaude ezen bost axola zer egingo duten zurekin. (...) Itxaropenik ez, askatasunik ez zegoelako, laguntza emango zizunik ere ez, ezta animatuko zaituenik ere.



Félix Padín

(BDST 38, Bilbo, Bizkaia)

Makurtu nahi zintuzten, edozein gauzagatik akabatu nahi zintuzten, gosez ala lan eginez, ea etsizten zinen edo duintasuna galtzen zenuen. Nik behintzat ez, eta horrela askok; elkartzten ginenean elkar animatzen genuen eta eusten genion, eta horren froga dugu gaur ere jarraitzea, nik behintzat bai, eta horrela askok eutsi diote, ez zuten etsitzea lortu, ezta duintasuna galtzea ere, zutik jarraitu dugu eta!



Rufino Orozco

(BDST 38, Galdakao, Bizkaia)

Elizan ez, baino apaiza (Erronkarikoa) mendira etortzen zen sermoiak ematera, gu gaiztoak ginela eta lanaren bidez bekatua berrerosten ari ginela zioen. Eta guzti hori aditu eta mutu gelditu behar genuen! Eta gu gaiztoak ginenean...



BDST 14n Millán, Lezan, 1941
Laguntza Argel Etxebarria, prisioneroa

LANGILE BATAILOIEN HELBURUAK

1. La de compensación, en lo posible, de la carga originada por la sustentación de los prisioneros.
2. La de contribuir directa o indirectamente a la reparación de los daños y destrozos perpetrados por las hordas marxistas.
3. La de conseguir la corrección del prisionero, proporcionándole medios y ocasión de demostrar sus propósitos y en todo momento su grado de rehabilitación moral, patriótica y social, adquiriendo el hábito de la profunda disciplina, pronta obediencia y acatamiento al principio de autoridad, precisamente y muy especialmente en el trabajo, como base previa e indispensable de su adaptación al medio ambiente social de la Nueva España.

Nota: Regulado por el Reglamento de los Batallones de Trabajadores de la División de Sanidad, 1941, Cap. 2, 201-10.

ESKLABOTZA FRANKISMOAN: ERREPIDEAK ETA FORTIFIKAZIOAK MENDEBALDEKO PIRINEOAN

2. Egur asko, ogi gutxi!

